

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3110

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira Adunako (Gipuzkoa) 1. Belen Industriagunean material erregogorra fabrikatzeko Refractorios Kelsen, SA enpresak aurkeztutako ingurumen-inpaktuaren azterketa eta proiektu teknikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta eta ingurumen-baimen integratuaren funtsezko aldaketa egiteko.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak ingurumen-baimen integratuaren araubidearen mende jartzen ditu 1. eranskinean zerrendatutako industria-jardueraren bat gartzten duten titulartasun publiko edo pribatuko instalazioak.

Arau horrek 10. artikuluan ezartzen duenez, instalazio baten ezaugarrien edo funtzionamendua- ren edozein handitze edo aldaketa funtsezkotzat joko da, baldin eta aldaketak edo 1. eranskinean ezarritako edukiera-atalaseak berez hartzen baditu, edo ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrun- taren prozedura bete behar badu, gai horri buruzko araudiaren arabera.

Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak (Industriako Isurpenen Erregelamendua onartu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena) ezartzen duenez, dokumentazio osoa aurkeztu ondoren, organo eskudunak jendaurrean jarriko du gutxienez hogeit egunez.

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, ezartzen du inguru- men-inpaktuaren ebaluazio arrunta izango dutela haren I. eranskinean jasotako proiektuek, bai eta zatikatuta aurkeztu diren eta aintzat hartutako proiektu bakoitzaren magnitudeak edo dimen- tsioak metatuz I. eranskineko atalaseetara iristen diren proiektuek ere.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluen arabera, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dizkio proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterketa, eta organo horrek jendaurrean jarriko ditu gutxienez hogeita hamar egun balioduneko epean, aldeztu aurretik iragarkia jarrita Esta- tuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean eta haren egoitza elektronikoa.

Zabalkunde handiagoa emateko, iragarki hori jarduera edo instalazioa dagoen lurraldeko uda- lari jakinaraziko zaio, tokiko erakundeak bere ediktu-taulan jar dezan.

Horregatik guztiagatik, AAI00394_MS_2026_001 espedientea jendaurrean jarri behar da, hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, egoki iritzitako alegazioak edo oharak aurkezteko.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete behar duen instalazioaren dokumentazioa jendearen eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 2a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.